



EBBren Prentsa Bulegoa
EUZKADIko
PRENTSA IDAZKOLA



Andoni Ortuzar

Bilbao, 2019-12-17

‘Miñano auzia’ izenekoaren epaia ezagutu dugu gaur. Esan beharrik ez dago auto judiziala onartzen dugula. Nahiz eta oraindik behin behinekoa den, errekurtsioak aurkeztu ahal direlako, gaur eta hemen aldarrikatu nahi dugu etikoki gaitzesgarria den edozein praktika, herritarren zerbitzura lan egiteko helburuaren kontrakoa dena, Euzko Alderdi Jeltzalearen praktika eta asmoetatik kanpo dagoela.

Aukera berdintasuna kaltetuko duen edozein ustelkeria gaitzesten dugu eta gaitzetsiko dugu, berdin pertsonen edo entitateen aberaste okerra bilatzen bada edo lasterbide okerrak eta bidegabeak bilatzen baditu. Ustelkeria beti da ustelkeria, berdin dio milioika euro badira zein kopuru txikiak badira. Eta, are kondenagarriagoa da, gizartearen ondasunen kontra egiten bada, herritarren dirua eskuratzeko egiten bada.

Erabat gaitzesten ditugu auzi honetan epaitu eta kondenatu diren ekintzak. Gure gaitzespena erabatekoa da. Erabatekoa da gaur eta erabatekoa izan zen atzo eta ikerketaren berri izan genuen momentuan ere. Epaiak azaltzen dituen jarrerak eta ekintzek ez daukate zerikusirik EAJ-PNVrekin. Guztiz alderantziz, EAJ beti egon da, eta egongo da, halako jardueren eta jarrereren kontra.

Esparru politikoa, zoritxarrez, ez dago gaur ezagutu den epaian azaldu diren ekintza okerretatik libre. Gizakiak halakoak egiten ditu batzuetan, zoritxarrez. Dena dela, EAJ-PNVk praktikatzen duen lan politikoa euskal gizarte osoaren bizimodua eta ongizatea hobetzera bideratuta dago. Denon ongia hobetzera. Barkamenak eskatu nahi dizkiogu euskal gizarte osoari, gure erakundearen baitan ere, epaiaren arabera, horren modu okerrean jardun duten batzuk egon direlako.

Alderdi honen alde esan behar dut atxiloketak eta gaur kondenatuak izan diren pertsonak auziperatuak izan zirenean arintasun osoz eta zalantzarik gabe erabaki genuela erantzukizun publikoetatik eta barne arduetatik ateratzea. Eta ez hori bakarrik. Gure barne araudi eta estatutuak aldarazi genituen. Horri esker, Euzkadi Buru Batzarrak gaur alderdikidetzak kautelaz eten ahal die ustelkeria kasuengatik ikertuak diren alderdikideei, eta zigortzeko epai irmoa ematen denean ere, Alderditik kanporatzeko espedientea ireki dezake dagokion barne epaitegiaren aurrean.



Era berean, argi baino argiago utzi nahi dugu gaur ezagutu dugun epaia ez dela, inola ere, EAJ-PNVren kontrako epaia, hainbatek behin eta berriz esan arren eta gaur ebatzi den prozedura judizialarekin nahastu gaituzten arren. Gezur bat mila bider errepikatu arren, gezurra da eta ez da sekula egia izango.

Azkenik, eta ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, ehunka emakume eta gizonen zintzotasuna eta zuzentasuna aldarrikatu nahi dugu, beren denbora eta beren familia, ondarea, ongizatea eta zerbitzu publikoan aurrera egiteko gaitasuna eman duten herri karguena eta barne karguena. Guztientzat onena bilatzen duen jendea da, 'Denak berdinak' direla diotenen kritika errazak bidegabeki astintzen duena. Ez. Ez da egia. Herri honetan, Euskadin, herri kargudun gehienak, ordezkari politikoak, alderdi guztietakoak, zintzoak gara, garbiak gara. Eta gaur berretsi nahi dugu zintzotasunarekin, egiarekin, gardentasunarekin eta guztion ongizatearekin hitzeman dugun konpromisoa.



Hemos conocido hoy la sentencia del denominado 'caso Miñano'. Acatamos el auto judicial, aún provisional porque frente a él caben recursos, y al mismo tiempo proclamamos, como lo hemos hecho siempre, que cualquier práctica éticamente reprobable, contraria a la vocación de servicio público que debe tener la acción política, está reñida y fuera de la práctica y del ejercicio del Partido Nacionalista Vasco

Condenamos y condenaremos cualquier tipo de corrupción que altere la igualdad de oportunidades, que busque el enriquecimiento ilícito de personas o entidades, o que pretenda buscar atajos o beneficios injustos. La corrupción es siempre corrupción, sea esta de millones de euros o de cantidades inferiores. Y es más reprobable aún cuando se perpetra contra caudales públicos pertenecientes al conjunto de la sociedad.

Nuestro rechazo a los hechos juzgados y condenados no tiene matiz ni duda. Ni hoy, ni ayer, como lo demostramos cuando actuamos tras el conocimiento de la investigación. La sentencia relata unas actitudes y actos que nada tienen que ver con el PNV. Al contrario, siempre tendrán al PNV enfrente.

La actividad política no está exenta de tachas como las marcadas en la sentencia hoy conocida. Tachas inherentes a la conducta humana. Sin embargo, la acción política que practica EAJ-PNV va dirigida a mejorar la vida y el bienestar de la colectividad vasca. A mejorar el bien común. Pedimos perdón al conjunto de la sociedad por el hecho de que en nuestro seno también haya podido haber quienes, según la sentencia, insisto, han actuado de esta manera tan censurable y tan opuesta a los principios e ideales que siempre han regido este partido.

También debo decir, en defensa de este partido, que en cuanto conocimos las detenciones y las posteriores imputaciones a los hoy condenados, decidimos rápida y eficazmente apartarlos de sus responsabilidades públicas e internas. No solo eso. También procedimos a modificar nuestros propios reglamentos y estatutos que, a día de hoy, permiten al Euzkadi Buru Batzar suspender cautelarmente de su condición de afiliados a quienes se encuentren investigados en procesos judiciales por corrupción y, en caso de sentencia condenatoria firme, incoar expediente de expulsión del partido ante el correspondiente tribunal interno.

También queremos dejar claro que la sentencia que hoy hemos conocido no es una sentencia contra el PNV, a pesar de que muchos lo hayan repetido, intentando hacernos daño y vinculándonos con el procedimiento judicial hoy sentenciado. Por



mucho que una mentira se repita mil veces, no dejará de ser mentira para convertirse en verdad.

Por último, y no por ello menos importante, queremos poner en valor la honestidad y la entereza de centenares de mujeres y hombres, de cargos públicos e internos que dedican su tiempo y el de su familia, su patrimonio, su bienestar y su capacidad de progreso al servicio público. Gente que sólo busca lo mejor para todos y que se ve sacudida injustamente por la crítica fácil de quienes dicen que “todos son iguales”. No. No es verdad. En este país, en Euskadi, la inmensa mayoría de los cargos públicos, los representantes políticos, de todos los partidos, somos honrados. Gente decente que en un día como hoy ratificamos nuestro compromiso con la honestidad, con la verdad, con la transparencia y el bien común.